

36ko Gerra. Apirileko kronika

Gernikako oihartzunak

Kostata izan arren, 1937ko apirilaren 26 arratsaldean gertaturikoa arras argi dugu gaur egun historia orrialdeetan. Egun hartan, arratsaldeko 16:15etik aurrera, Gernikako zerua infernu bilakatu zuten Gasteiztik eta Burgostik gerturatutako Kondor Legioko hegazkin frankisten bonba, metraila eta suak. Heriotza eta suntsipena nagusitu zen eta historian lehenengo aldiz hiri batek bonbardaketa orokorra jasan zuen. Handik egun gutxira Herbert Southworthek idatzi zuen legez, “Gernikako izenak hiri hori erre zuten suarek baino gehiago erretzen zuen”.

JOSU CHUECA

GERNIKAKO HONDAKINEK oraindik kea haizera-tzen zuten bitartean, itzaliko ez zen eztabaidaren sua piztu zen. Besteak beste, ordura arte izandako bonbardaketen marra tragikoa nabarmen gainditu zutelako. Jakina, gerraren hasieratik bertatik, frankistek hegazkinetatik bonbardaketa latzak burutu zituzten. Gerra hasi eta lau egunera, hain zuzen, Otxandion (Bizkaia) estreinako sarraskia egin zuten, 53 hildakorekin. Bidasoako

gudaldian ere, Caproni hegazkin italiarrak eraginkorrak izan ziren frankisten oldarrak gauzatzeko. Eta Bizkaiaren aurkako erasoaldia abiatu zenean, Bilbok, Eibarrek, Elorriok eta bereziki Durangok pairatu zituzten bonbardaketek argi utzi zuten nazionalen estrategian jokabide hori izango zela ardatza.

Baina Gernikaren aurka buruturikoan, besteetan izandako jarrera muturreraino eraman



GUERNICA LIBURXKA



zuten nazionalek. Hiri horretan, salbuespen izan ziren suntsitu gabe geratutako etxeak, eta hildakoen kopurua, gaur egun zehaztu gabe jarraitzen duen arren, Durangon utzitakoarekin batera handienetakoa izan zen. Izan ere, bietan bonbardaketak hainbat saiotan egin ziren: Durangon hiru egunetan, eta Gernikan arratsalde batean, baina hiru ordu luzez eta hegazkinen joan-etorriekin. Hala, Tabira zaharra Gernikan gertaturikoaren aurrekari izan zen moduan, azken hau II Mundu Gerran gertatuko ziren triskantzen zerrendaren (Warsavia, Coventry, Leningrado, Oradour sur Glane, Dresde, Hiroshima, Nagasaki) aitzindari izan zen.

Gainera, arestian aipatutako bonbardaketa guncetan, jasandako erasoei buruzko txostena, hildakoen nortasunak, hegazkinak erabilitako munizioa eta erasoen ezauzgarriak biltzeko eta zabaltzeko aukera izan zuten bertakoek, frankistek leku horiek eskuratu baino lehen. Gernikan aldiz, bonbardatu eta hiru egunera frankistak suntsitu zuten hiriaren jaun eta jabe egin ziren eta triskantzari buruzko informazio zuzenaren kudeatzaileak beraiek izan ziren. Horrela, apirilaren 27an hasitako desinformazio ekimenari jarraitzen zabala egin zioten euren aldeko kazetari eta publizistek. Lekukoek ikusitakoaren aurka, frankistek temakeriaz jarraitu zuten esaten Gernikako txikizioa gorri-separatistek edota dinamitariek asturiarrek burutu zutela. Hori zela medio, Gernikaren hondakinen gainean gezur beltza erori zen etengabe. Iseka galanta, biktimak borroko bihurtzen zituena eta benetako suntsitzaileak ongigile askatzaile. Egoera hori larriagotu egin zen gerrak aurrera jo zuen neurrian. Izan ere, Bilboko galerarekin Gernikako bonbardaketaren oihartzuna erbestean indartu zen gehienbat. Europan —Frantzia bereziki— eta oraindik Errepublikanoen eskutan zeuden lurraldeetan, komunikabide askok Gernikan gertatutakoari buruz eman zuten informazio okerra zuzentzen saiatu zen Eusko Jaurlaritzak, martxan zuen ordezkariarekin. Horretarako,

Bonbardatu eta hiru egunera
frankistak suntsitu zuten hiriaren
jaun eta jabe egin ziren eta
desinformazioari ekin zioten
euren aldeko kazetari eta
publizistek

Euzko Deia aldizkari hirueledunaz eta lurralde horietako kultur gile zenbaiten laguntzaz baliatu zen. Hala, hainbat intelektualek —haien artean gerra hasieran Francoren eta enparauen altxamenduaren aldeko jarrera erakutsi zuten batzuek— adierazpen kolektiboak burutu zituzten Gernikan gertaturiko sarraskia jakinarazteko. Testuinguru horretan kokatu ziren, zenbait hilabete beranduago, Ligue Internationale des Amis des Basques delakoa eta bere sustatzaileak.

Guernicatik mundura Picassoren eskutik

Dena den, Gernikan izandako triskantza munduratzeko bidetik etorri zen, mendea hasi zenetik Parisen finkaturik zegoen Pablo Picassoren eskutik, hain zuzen ere. Bonbardaketa gertatu zenerako, margolari ospetsua Espainiako Gobernu Errepublikanoaren agindura lanean zebilen, urte horretan Parisen egin behar zuten *Arte eta teknika oraingo bizitzan* izeneko nazioarteko erakusketako pabiloian koadro edo horma-irudi bat burutzeko. Urtarrietik zuen manatu hori eta konpromiso horri aurre egiteko ez omen zuen biderik asmatzen. Baina Gernikako bonbardaketaren berri izan zuenean, askatu zitzaion korapiloa. Maiatzaren 1ean, Parisen manifestariak langileen aldarrikapenak aireratzeko eta Frantziako Gobernuak Espainiako Errepublikarekiko zeraman politika koldarra —gerran parte ez hartzearena alegia— salatzen zuten bitartean, Pablo Picassok *Guernicaren* lehen zirriborroa marraztu zuen Grands Augustinseko 7. ganbaran zuen lantokian. *Songe et mensonge de Franco* (Francoren amets eta gezurra) deituriko marrazkietan hainbat irudi iturri aurki daitezkeen arren, *Guernican* gerraren izuak era iraultzaile bezain zirrargarrian adierazi zituen, osagai eta moldaketa berrien bitartez.

Thérèse Markovitch, Dora Maar izengoitiarekin ezaguna egin zen argazkilaria Picassoren lana urratsez urrats argazkitan hartu zuen, pabiloira eramane zuten arte. Horri esker eta Picassok

berak egindako zirrimarra askoren bitartez, koadro erraldoi hori burutzeko artista andaluziarrak zertu zituen aldaerak antzeman daitezke. Behinbetiko emaitzak erabat bete zuen zegokion pabiloiko horma eta, batez ere, Gobernu Errepublikanoak nahi zuen helburu propagandistikoa. Trocaderoako eremuetan Palais Chailloten inguruan ireki zen nazioarteko erakusketan, Alemaniako eta SESBko pabiloiek aurrez aurre beraien ideologiaren seinaleak eskultura erraldoien bitartez aineratzen zituzten bitartean, Espainiakoan Picassoren lanak gerraren izuen berri eman zuen eta ordura arte euskaldunentzat bakarrik ezaguna zen Gernika mundu mailako ikur bihurtu zuen.

Orduan abiatu ziren koadro horren inguruko irakurketak eta exegeziak, Picassok berak argitzen batere lagundu ez zituenak. Izan ere, gaur egun arte luzatu zaizkigu margo horren funts eta osagaien gaineko adierazpenak, sarritan arras desberdinak eta kontrajarriak suertatu direnak. Juan Larrea, Jose Mari Uzelai, Herschel Chipp, Josep Palau, Reinhold Hohl, Anthony Blunt, Gijs Van Hensbergen eta abar luze bat hurbildu dira *Guernicara*, orduko eta oraingo arte kritikari asko, bere ulerkerak mamitzeko. Etengabeko arreta horrek agerian uzten du koadroak garaiko gizartean oihartzun handia eta hurren-

go belaunaldien artean egundoko hunkipena lortu zituela.

Beste Gerniak

Gernikan gertaturiko triskantzaren zeharkako testigantzarik eraginkorrena Picassorena bada ere, beste adierazpide batzuek indartu zuten Gernikan gertaturikoen oroimena. Halabeharrez, mugaz bestaldean, *zabal zazu munduban fruituba* leloarekin bat eginez Gernika erbesteratuen erreferentzi preziatuenetakoa bilakatu zen. Baldintza txarretan ere, Argelés sur Mer bezalako kontzentrazio zelaietan kasu, euskaldunak elkartzeko Gernikaren izena erabili zuten. Hesian artean zeuden gatibu euskaldunek euren esparru berezia prestatu zuten, izendatzeko ez zuten

zalantzarik izan eta "Gernika Berri" paratu zioten. Antzeko zerbait egin nahi izan zuten, hilabete batzuk geroxeago, Gursekora eramanean zitutenean, baina hor agintari frantziarrek nolabaiteko auto-eraketa onetsi bazuten ere, ez zuten onartu horrelako izen deigarriarik. Bigarren Mundu Gerran ere Girondeko eskualdeetan, zehazki Pointe de Graven batailoi bat osatu zutenean, borrokara hiri suntsituaren izenarekin joan ziren.

Guda hori amaitutakoan, berriro ere Gernikako kimuak zabalduz joan ziren komunikabide

Hesian artean zeuden gatibu euskaldunek euren esparru berezia prestatu zutenean, izendatzeko ez zuten zalantzarik izan eta "Gernika Berri" paratu zioten

entzun ARGIA aldizkaria

www.argia.com/argia-astekaria
sar zaitez eta piztu entzungailuak

ARGIA



Picassok *Guernica* horma-irudia buruzteko marraztu zituen zirriborroak eta koadroko hainbat zati, sinbolismoz beteak.

eta kultur esparruan. 1945ean bertan, esate baterako, Donibane Lohitzunen euskal kultura zabaltzeko Gernika institutua jaio zen, erbestean zeudenen artean kulturgileen lanak suspertzeko. Baina II. Mundu Gerra amaitu osteko abagune itxaropentsuak gutxi iraun zuen, gerra hotza zela medio diktadura frankista ahuldu beharrean sendotzen hasi zelako. Hori zela eta, luze, oso luze joko zuen Gernikaren gaineko oroimena berreskuratzeko. *Guernica* koadroa erbesteratuen eta galtzaileen patuaren metafora bihurtu zen. 1939an Londresera eta New Yorkera egindako behin-behineko bidaia betiko leku bihurtu zen, azken hiri horretako MOMA (Museum of Modern Art) delakoan gelditu baitzen. Picassok koadro hori Espainiaratzeko jarritako baldintza bete ez zenez, hots erregimen errepublikanoa

indarrean berriro izatea, diktadurak iraun zituen lau hamarkada luzeetan Atlantikoz bestaldean mantendu zen, erbesteratuen antzera. Bitartean, familia girotan aterpetu zen 1937ko apirilaren 26an gerraren ondorioz gertaturikoaren oroimena eta oihartzuna. Eskolan, kalean, erakundetan, hedabideetan... frankistek luzaturiko bertsiok egia bakar eta ofizialaren indarra zuten arren, eremu pribatuetan benetan gertatukoaren berri izan zuten belaunaldi berriek.

Bikoiztasun berezi horrek 1960ko hamarkada arras aurreratua izan arte iraun zuen. Gerran suertatu ziren galtzaileen eta garaileen arteko desberdintasuna, orduan hasi zen deuseztatzen. 1962az geroztik, langileria eta erakunde klandestinoak berriro ausardiaz kalean agertzen hasi zirenean, gorpuztuz joan ziren agintean zegoen erregimen diktatorialaren aurkako mezuak, Gernikan gertaturikoa objektibotasun ildoetara eramaten zituztenak. Tes-tuinguru horretan, Gernikak gerra aurretik eta gerra garaian izan zuen oihartzun sinbolikoa eta aldarrikapena berreskuratu zituen. Erbestetik ezkutuan ekartzen zituzten George Stee-

Erbestetik ezkutuan ekartzen
zituzten George Steer, Hugh
Thomas, Pierre Brou er eta
Gabriel Jacksonen historia
liburuak frankisten gezurrak
desegiten hasi ziren



ren, Hugh Thomasen, Pierre Brouéren eta Gabriel Jacksonen testigantza eta historia liburuak frankisten asmakizun eta gezurrak desegiten hasi ziren.

Guernica Gernikara

Bestalde, lehen masa mobilizazioak, auzi nazionala akuilu zutenak, berriro hasi ziren kaleratzen. Eta hor berriro egiten dugu topo Gernikarekin. Ez da kasualitatea, Francoren aroko lehen Aberri Eguna (1964koa) hiri horretan burutu izana. Gernika 1936ko Gerra aurretik euskal askatasunen eta autogobernuaren leku sinboliko esanguratsuenetakoa baldin bazen, gerran jasandako suntsipenarekin zentzu sinboliko hori biderkatu zitzaion. Horrela adierazi zuten, klandestinitateko oztopoak gaindituz, 1964ko martxoaren 29an burututako Aberri Eguna hurbildu ahal izan ziren milaka euskaldunek. Era berean, diktaduraren aurkako erakunde guztien adierazpide askotan Gernika ikur errepikatuenetakoa izatea ohiko bilakatuz joan zen, diktaduraren amaierarekin batera jakin-nahiaren eta egiaren nahiak eztanda egin zuen arte. Orduan, familia giroan eta lagun

Juan Larrea, Jose Mari Uzelai, Herschel Chipp,
Josep Palau, Reinhold Hohl, Anthony Blunt,
Gijs Van Hensbergen eta abar luze bat
hurbildu dira *Guernicara*

esparrutan, batez ere Southworth eta Vilarrek egindako lanei eta Gernikan bertan –1977an eta 1987an bereziki– sortutako herri ekimen batzuei esker jakina zena esparru guztietara zabaldu zen. Hamarkadetan zehar inposatutako gezurren gainetik, galtzaileen bertsioak, egiari lekua egiten zionak, argia eta oihartzuna izan zuen. Oraindik ikertzeko eta frogatzeko puntu batzuk gelditzen badira ere –biktimen kopuru eta ezaugarri zehatzak, frankisten eta Kondor Legiokoen arteko loturen zehaztasunak...– funtsean Gernikan 1937ko apirilaren 26an gertatu zena gaur goitik behera ezagutzen dugu. Hala ere, gai honen inguruan egin ziren ekimen guztietatik bada bat bete ez dena, *Guernica* koadroarekin zerikusituz zuzena duena. 1981ean Suarezren gobernuaren aginduz Javier Tusellek egindako gestioei esker, koadroa MOMAtik Espainiara eramane zuten, nahiz eta erregimen errepublikanoa ez izan. Bere kokalekuari dagokionez, UCDko agintariez ez zuten zalantza izpirik izan: nahiz eta hiri desberdinek aldarrikatu, haien artean Gernikak, Madrilen kokatu zuten. Cason del Buen Retiro delakoan hasieran, bere izenarekin Errepublikanismoari

Guernica Gernikara eskatzen duten artista, intelektual eta alderdi politikoek itxi gabeko auzia dute hor, euskal zauria ixteko ere baliogarri izan daitekeen tresna

iseka zuzena egiten dion Centro de Arte Reina Sofía delakoan beranduago. Hortik ez da mugitu eta dirudienez ez da mugituko. Izan ere, historian zehar gehien bidaiatu duen margoak orain ezin omen du keinu txiki baten adierazle ere izan. *Guernica* Gernikara eskatzen duten artista, intelektual eta alderdi politikoek itxi gabeko auzia da, euskal zauria ixteko ere baliogarri izan

daitekeen tresna, 1937an Euskal Herriarekiko eta Espainiako Errepublikarekiko elkartasunaren ikurra izan zen bezala. *Guernicak* jatorria Gernikan izan zuen legez, hortxe bertan izan beharko luke behin-betiko kokalekua. Tusellen errana gureganatuz, orduan bai esan ahalko litzateke diktaduraren osteko trantsizioa amaitzeaz legokeela. ■



aurrera doan
herria

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

Oroimen bizia
1936 - 2006
Memoria viva

Literaturaren argitan

Lutxo Egia, *Paperezko Hegazkinak* (Susa 2002)

Kazetaritza *Blitzaren* denboran



"Gernikako bonbardaketa Blitz-a dun (Blitz kierge: oinaztargigerra), Londresko bonbardaketa amaigabea"
Lutxo Egia

"Horman gernika biak, arboladun tenplua eta kriseiluak argituriko suntsidura, eta oteizak, eta ruizbalerdiak, eta zazpiak bat, eta ameztoiak, eta Bilboko argazkiak"
Joseba Sarrionandia

"Gernika, ordea, hiri sakratua zen euskaldunontzat' esan nion poloniarrekiko aldea nabarmendu nahian, ziur nengoen arren ez zuela jakingo zertan datzan hiri bat sakratua izatea"
Ramon Saizarbitoria

Nola eragingo dio burutik argiaren gordinak, Gernika sutan ikusitakoari?
Koldo Izagirre

"Mesopotamia zaharrear Gernika berriak nonahi ikusten dihardugun honetan, sekula ez dira hitzak gertatu hain alferrikako"
Hasier Etxeberria

Gernika izena idatzi eta berrehundik gora erreferentzi bilatuko dizkizu Armiamako Bertso eta Olerkien hemerrotekak. Asko bonbardaketaren aurrekoak dira, Iparragirre, Arrese Beita, Zapirain. Sarraskia hunkitu zituenen artean topatuko dituzu Ezkiaga, Iratxer, Basarri, Etxezaharreta, Lete, Rezola, Monzon...

Ezin esan poesiak ahaztua duela Gernika. Patxi Ezkiagak liburua oso bat eskaini zion, *Gernika* (Erein 1987), eta bonbardaketaren 50. urtemuga zela eta *Susa* literatura aldizkariak zenbaki monografikoa karrikaratu zuen: *Susa 20 Gernika* hark, besteak beste, Edorta Jimenezen zenbait testu bildu zituen, Maskarada antzerki taldeak taularatu zuen *Gernika 16:00 H.S.O.* antzezlanaren testuak, hain zuzen.

Aurrekoan bezalaxe –Durangoko bonbardaketa ekarri genuenean bezalaxe– gutxi idatzi dela esateko tentazioa izan dugu. Baina ezagun da gure denboran efemerideek dutela agintzen, eta tarte honetan Durangokoaren kronika argitara eman du Sarrionandiak *Gara* egunkarian. Gernikaz ere, antzeko balorazioa egiteko asmoa genuen, baina hau prestatzen ari ginela Bernardo Atxagak gaztigatu digu Gernika duela jo puntuan apirilera, litekeena da hitz hauek plazaratu eta liburua jadanik salgai egotea. Agian ez dira ekarpen berri bakarrak, hala biz.

Gauzak honela, eta egunerokotasunaren morroi garelako jakinda, gai bakarrari erreparatu nahi diogu. Bonbardaketaren berria nola zabaldu zen, eta bereziki kazetariak egin zuten lana: Steer, Monks, Holme, Corman, Watson, G. Bowers, Johnson, Southworth, kazetari ingelesdunak gehienak, egun ezagutzen dugun bertsioaren erantzule, baina ez bakarrak.

Bonbardaketa 1937ko apirilaren 26an gertatu zen; egun horretan bertan, gauean, auto batek bost kazetari eraman zituen Gernikara, horien artean George Steer (*The Tree of Gernika*). Hurrengo egunean, Steer Gernikara itzuli zen, egunez ikusi nahi zuen sarraskia. Steeren kronikak, *Times* eta *The New York Times* egunkarietan argitara eman zenak, apirilaren 28ko data dauka. Apirila bukatu zenerako desmuntatzen hasia zen frankisten bertsioa. Maiatzaren 1a heldu eta Parisen Gernika zen oihukatzen. Martin eta Xabier Etxeberriari kasu egiten badiegu (*Ez dadila eguzkia sartu*, Elkar 2006) Euskadiko futbol selekzioek 26an bertan Parisen jaso zuten berria.

Bada gure idazleek ere erreparatu diote lau egun horietan gertatutakoari. Lutxo Egiaen *Paperezko Hegazkinak* eleberraren gai nagusia dugu, Gernikako bonbardaketaren bertsioarena. Kontakizunak 1998ko data dauka, baina etengabe Gernikara itzultzen da protagonisten gogoak. Komunikabide bereko bi kazetari, Capon eta Marriot, bi bertsio media berean. Bertsio horien erdian hirugarren kazetari bat, Fernando Aranguren, Iruñekoa, erreketea, eta lehen-dabiziko unetik lekukotasun gehienak bere esku izan dituena. Kontakizuna hariilatzen duena Galder da, kazetari euskalduna, gaur egunean Arangurenen xerka dabilena. Liburua kazetaritzak jokatu ohi duen paperaren kritika ere bada. Egiak bonbardaketaren garaiak egungoarekin erkatzen du. Argigarria oso, gerra garaiko prentsa dela eta, protagonistetako baten gogoeta: "Capon ez zegoen seguru, gerrak zekarren zaborra ala zaborrak gerra". Egungo prentsatik ekarritako aipuak gazteleraz dira.

Arestian esan bezala, Galder Fernando Arangurenen arrastoan dabil, frankisten aldean lanean ari ziren kazetari atzerritarrekin omen zebilen. "Galder bihurritu egin zen. Lagunak bidali hirugarren artikulu hark garbi frogatzen zuen Fernando Gernikan egon zela apirilaren azken egunean. Beharbada hogeita bederatziko eguerdiaz gero zebilen. Haren begiek ere ikusi zuten Caponek hiru egun lehenago ikusitako sugarren kito ketsua".

Agian, Aranguren eta Jaime Vargas apirilaren 29an ikuskizun beraren lekuko izan ziren Molaren agindupeko tropekin Gernika xafratuan sartu zirelarik. Honatx, Durangokoan egin aipamenaren arrazoia. Izan ere, Jon Alonsoren ipuin bateko pertsonaia da Jaime Vargas. *Liderra* da ipuinaren izenburua. Alonsoren ipuinean, bonbardaketa apirilaren 27an gertatzen da, baina aski ongi iradokitzen du zertaz ari den. Jaimek, hirian sartzean, hauxe esan omen zuen: "Beharrezkoa al zen hau guztia?" Apirilaren 29a zen. Sinetsiko al diogu?

Haria ez da eten, kontakizun kronologiko honek Alberto Ladronen *Eguzki Beltzaren Sekretua* eleberraren hasierara garamatza. Orain arte, Gernika bonbardatuan sartu zirenak aipatu ditugu, bada Ladronen, Oskar protagonista Gernikatik aterazten du. Oskar gaztea, II. Mundu Gerran espioitza lanetan ibiliko dena, faxisten eremura igaroko da. "Lau egun igaroak ziren ordudunik. Lau egun Gernikako infernutik ateratzea erabaki zuenetik". Oskarrek, Gernikatik atera eta berehala, hiru erreketek hiltzen ditu.

Airezko eraso honen kontakizuna lurretik egin dugu; bizkitartean, *Gazteizko Hondartzetako* Hans airean zebilen, bere Heinkel 51 pilotatzen, *Batxiren* izatea frogatzen zuten agiriak bonbaz erretzen, heriotzaraino erre ere.

Patxi Sarrionandia

Pornografiatik museora

70 urteko gurutzte-bidea jasan behar izan dute Luis Quintanillaren *Maitatu Bakea Gorrotatu Gerra* koadroek, berreskuratua izan aurretik. Espainiako Errepublikako Gobernuaren eskaeraz egindako lanak New Yorkeko zinema porno bateko korridorean zintzilik egon ziren urte luzez.

GORKA BEREZIARTUA

LUIS QUINTANILLAK oso zeregin desberdinak izan zituen 36ko Gerran. Uztailaren 18a arma bila pasa zuen PSOEn gaztedietako soldaduen artean banatzeko. Armada Errepublikarreko ofizial izendatu zuten ondoren eta, besteak beste, Madril defentsan eta Tole-doko Alcázar-aren aurkako erasoan parte hartu zuen. Azken horregatik, Francoren zerrenda beltzean sartu zen Quintanilla.

Militar lanetan aritu arren, ez zion barruko artistari alde egiten utzi eta gogoz hartu zuen 1937ko udaberrian Espainiako Errepublikako Gobernuak egindako eskaintza: gerrako fronteak bisitatu eta han ikusitakoekin margolanak egitea. Errepublikako Gobernuaren asmoa artelanak Picassorenarekin batera 1939ko New Yorkeko Munduko Ferian Errepublikaren aldeko propaganda gisa erabiltzea zen. Bere lana amaitu zuenerako ordea, Francok eta bere jarraitzaileek irabazia zuten gerra.

Quintanillaren obra ezin izan zuten Munduko Ferian erakutsi. Modu xumeagoan eraman zituzten jendaurrera bost freskoak, Associated American Artists erakundearen Sagar Handiko 5. Etorbideko galerian. Artis-ta espainiarrak gai bat eman zion koadro bakoitzari: *Ihesa*, *Oinaztea*, *Suntsipena*, *Soldaduak* eta *Gosea*. Horren ondoren, koadroak arrastorik utzi gabe desagertu ziren.

“40ko hamarkadaren hasieran aitak esan zuen urak teilatu bat hondatu ondoren fresko guztiak suntsitu egin zirela”. Margolariaren semearen hitzak dira, Paul Quintanillarenak. Harriduraz jaso zuen 1990ean bere aitaren

koadroak New Yorkeko Bleeker Street-en agertu izana. Larrialdietako irteera bateko korridorean zeuden, zinema porno batean.

Nola iritsi ziren hara?

Maitatu Bakea Gorrotatu Gerra koadro sortaren kalbario luzeak kasualitate eta bitxikeria ugari ditu. Semeari esandakoaren kontra, Luis Quintanillak isilpean gorde zituen freskoak Bleeker Streeteko eraikineko korridorean, Espainiako Errepublikaren aldekoa zen adiskide baten laguntzaz. Paul Quintanillak azaldukoaren arabera, “margolanak horrela gordeta, nire aitak aurrea hartu zion Francoren Gobernuak haiek erreklamatu eta suntsitzeari”.

Baina Bleeker Streeteko eraikina eskuz aldatu zen 1946an, Montparnasse jatetxea bihurtzeko. Jabe berria koadroak gainetik margotzeko zorian izan zen, baina Sydney Simon artista estatubatuarren bitartekaritzari esker, bere horretan utzi zituen.

Eraikinaren hurrengo jabeak, Jackie Raynal-Sarrek, arte eta saiakerako zinema ireki zuen 1962an. Urte batzuk beranduago berriz, John R. Soutok aretoa erosi eta zinema porno bihurtu zuen. 1990eko abuztuan zinemako atea itxi zirenean jakin zuen munduak non zeuden koadroak. Bada, 2007. urte honetan iritsi dira Kantabriako Unibertsitateko museora, negoziazio luzeen ondoren. Nola iritsi ere: *Suntsipena* koadroan ageri den ume bati bibotea, bekainak eta zigarroa margotu zizkioten Bleekerreko egonaldian, *Ihesaren* gainean berriz “EXIT” zioen gezia... Lan ederra zaharbertzailentzat. ■



Suntsipena koadroan ageri den umeari bibotea, bekainak eta zigarroa margotu dizkiote.



BFA
DFB
Bizkaiko Foru Erkundeak
Departamentuaren Foruak eta Zerbitzuak

BIZKAIKO ONDAREA
DENON ESKURA
Kultura ondarearen zabalkuntza. 2007

Ziortzako Kolegiatako erretaulak
zaharbertitza

Bolibarko Santo Tomas Elizaren
birgaitze integrala

Ikustaldi gidatuak, apiriletik abuztura
Informazioa, telefono hautan:
94 616 41 14 - 94 406 77 25



Memoriak balio duena, planoz plano

Gernika kiskalitik etxea gurdian hartuta joan zirenentzako zer balio du film batek? Beren herria pantaila handian ezereztua ateratzeak axola al zien batere? Zer balio du zinemak, beste guztiak –biziak ere– balioa galdu duenean? Zertxobait, agian. Hori pentsatu zuen behintzat Alain Resnais frantziarrak 1950ean *Guernica* filma egin zuenean. Zertxobait. Memoriak balio duena.

1937KO APIRILAREN 26AN Gernikan gertatutakoa bere artearekin munduan zabaltzen lehena Pablo Picasso izan bazen ere, margolari espainiarren lanak, ur gelditan botatako harriak legez, olatu ugari sortu zituen inguruan. Horietaiko batek Alain Resnais izeneko 15 urteko nerabe frantziar bat ukitu zuen eta uhinari jarraituz irudiak mugimenduan jartzen hasi zen.

Literaturzalea izaki –Marcel Proust eta batez ere André Breton bezalako idazleengatik mira sentitu zuen nerabezarotik– poesia erabili zuen beste inola azaldu ezin dena pantailara eramateko. Paul Éluardek *Gernikaren garaitza* poemarako idatzitako hitzak hartu zituen zinemagile frantziarrak. Zuri-beltzezko 13 minutuko laburmetraia izan zen emaitza.

Filmak kutsu dokumentala dauka lehendabiziko minutuetan. Gerniak euskal herritarrentzako izan duen garrantzia azaltzen du *off* ahots batek. Sarraskiaren nondik-norakoak, erabilitako bonba motak eta errudunak ere seinatu zituen Resnaisek. Bitartean, irudi bakarra ageri da pantailan: Gernika suntsituarena.

Guy Bernardek konposatutako piano doinu malenkoniatsu batek jarraitzen dio irudi horri. “Aurpegi surtarako on aurpegi hotzerako on/ Errefusarako gauerako irainetarako kolpetarako” errezitatzen du Maria Casares galiziarrek, frantsesez, zuri-beltzezko margolanetan aurpegi tristeak txandaka ageri diren bitartean. “Aurpegi orotarako on/ Hutsa dago zuei so/ Etsen-

**GORKA
BEREZIARTUA**

plu izanen da zuen heriotza” –Éluarden poemaren euskarazko itzulpena Mikel Antzak egin zuen 1987an, *Susa* aldizkariako 20. zenbakian kaleratzeko–.

Pixkanaka, musikaz lagundurik irudiak bizkorrago mugitzen hasiko dira. Egunkari baten azalean “guerra” eta “fascismo” hitzak azalduko dira, balen zuloak hormetan, sirena hots batek pantaila belztu arte. Iluntasun hori izango da filmaren bigarren zatian nagusi. Itzalen arteko argi izpi bakarrak negarrez ari diren aurpegi kubistak eta Picassoren koadroaren zatiak izango dira. Musika ere, hasierako naretasunetik kaosera igaroko da. Gerra maskararik gabe.

Dena dela, Alain Resnaisek ez zuen bere filma etsipen mezu horrekin bukatu nahi izan. Filmaren azken esaldiak “Gernika, inozentziak krimena gaingituko du” dio, Éluardek “Gurea izanen da arrazoia” esan zuen ziurtasun berarekin.

Geroztik zuzendari frantziarrak egindako lanek nazioarteko oihartzuna izan dute. Hor daude, besteak beste *Nuit et brouillard* eta *Hiroshima mon amour* bezalako lanak, zinemagintzan egindako ibilbide osoaren adierazgarri. Aipatutako bi tituluetan ere gerra sartu zuen Resnais bere kameraren objektibotik. Gerra, negargarria izan arren pantailaratu egin behar delako, memoriaren sekuentziatik kanpo gera ez dadin. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>
helbidean, Resnaisen filma ikusgai.